

Arboti-Zohota

Aurkibidea

Udalerria: Arboti-Zohota

Sarrera



Amikuze eskualdeko udalerria. Ipar-ekialdean Bearnorekin muga egiten du; mendebaldean Aiziritze-Gamue-Zohazti eta Gabadi ditu mugakide; hegoaldean Arberatze-Zilhekoa eta Zuberoako Domintxaine-Berroeta; eta Zuberoako Ozaraine-Eribareita udalerriarekin egiten du muga ekialdean. 1842an elkartu ziren Arboti eta Zohota, udalerri bateratua sortzeko.

- **Biztanleak:** 300
- **Euskaldunak:** %11,16

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **1**
- Zintak: **1**
- Pasarteak: **24**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **24**

Proiektuak

- Euskal kultur erakundearen artxiboak

Hizlariak

Jean-Marie Larroque (1938-2009)



Jean-Marie Larroque Arboti Bidetoan sortu zen 1938an. Bost haurridetan zaharrena zen. Bere burasoak etxe horretan plantatuak ziren 1937an, ezkondu bezain laster, etxetiar bezala. 1946an aferman jarri ziren. Jean-Marie 1964an ezkondu zen. Bere semeak hartu zuen segida Bidetoan, xerriak eta arto hazitakoa eginez. Bere bizian zehar ainitz mugimendu edo urratsetan inplikatu izan zen Jean-Marie Larroque: besteak beste Euskaldun Gazterian, FNSEA sindikatuan eta Etxarriko formakuntza zentroaren eta Lur Berri kooperatibaren administrazio kontseiluetan. Arboti-Zohotako auzapeza izan zen 1987tik 2001era.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Etxetiar semea (ZOH-001/001)

Jean-Marie Larroque etxetiar semea da. 1938an sortu zen Arboti Bidettoan. Etxe hortara jin ziren bere aitamak, etxetiar gisa, Zohaztitik (Gamue-Zohazti), ezkondu zirenean. Etxetiargoa oso hedatua zen garai hartan Amikuze aldean.

2. « Garikoitzenea » laborantza eskola (1952) (ZOH-001/002)

Laborantza eskola hau oso famatua da Amikuze Aldean. Hortik pasatu da ere bi urtez Jean-Marie Larroque. Aita Gachiteguy ukan du erakasle gisa.

3. 1939-1945 gerla denbora Arbotin (ZOH-001/003)

Arboti zona okupatua zen. Alemanak egoiten ziren Arbotiko jauregian. Arraultze keta ibiltzen ziren etxeetan.

4. Arboti eskola 1940 hamarkadan : zenbat haur (ZOH-001/004)

Bi errientsa baziren garai hartan, 35 haurrekin bakoitza. Familia handiak ziren, bospasei haurrekoak banabeste.

5. Arboti eskola 1940 hamarkadan : euskararen debekua (ZOH-001/005)

Arbotiko errientsak egin ahalak egiten zituen haurrak ez ziten euskaraz mintza.

6. Etxetiargoa Arbotin : baldintzak (ZOH-001/006)

Etxetiargoa gauzen partiketan oinarritua zen : etxetiarrak ogiaren eta kabalen salmentaren erdia ematen zion nagusiari, eta artoaren kasik erdia (6 lerro etxetiarrarentzat, 4 nagusiarentzat).

7. Etxetiargoa Arbotin : ahozko kontratua (ZOH-001/007)

Kontratua elez egiten zen. Nagusiak etxetiarra kanpora zezaken, 6 ilabete aintzin abisatuz gero. Etxe aldaketak Jondonimartinez egiten ziren, azaroaren 11an.

8. Etxetiarren estatutu soziala (ZOH-001/008)

Etxetiarrak ez ziren arras besteak bezaka kontsideratuak, bereziki ezkontzeko tenorean. Eskolan aldiz, ez zen berexkuntzarik senditzen.

9. Etxetiargotik aferma sistimara : aldaketa progresiboa (ZOH-001/009)

1946tik hara, legeak agindurik, etxetiargoaren sistimak tokia utzi behar izan dio aferma sistimari. Arbotin, 1962an, 13 etxeko jaun baziren, 13 etxetiar eta 13 aferman zirenak. JM Larroquen arabera, 1988tik hona, ez da gehiago etxetiarrik Arbotin.

10. Etxeko jaunak : nor ziren ? (ZOH-001/010)

Etxeko jaunetan bazen Arbotiko jauregikoa. JM Larroque haurra zenean, Arbotiko jauregiko jauna herriko auzapeza zen eta medikua Baionan.

11. Etxetiargoari lotu bizimoldea (ZOH-001/011)

Etxetiargoaren sistimak aldaketa frango gibelarazi ditu, etxeko jaunek ez zutelakotz diru gasturik egin nahi etxetiarren egoitzetan. Adibidez, Arbotin, argi indarra 1954ean ezarria izan da, jakinez hala ere 1920 hamarkadatik hara herri gehienak argi indarra etxeetara ekartzearen alde agertu zirela.

12. Laborantxako lan baldintzak Amikuzen 1940-1950 hamarkadan. (ZOH-001/012)

Lan guziak bortitzak ziren eta eskuz egiten ziren. Bidettoan, lanaren errextoko, lehenik belar moztekoa erosi zuten, bigarrenik trakturra, 1958an.

13. Etxetiargotik aferma sistimara : nagusien jarrera (ZOH-001/013)

Etxetiar ainitz zaukaten nagusiek ez zuten aferma sistimara pasatzea errexki onartzen. Nagusi batek aferma errefusatzen bazion etxetiarrari, arazoa auzitegi berezi batek (tribunal paritaire des baux ruraux) trenkatzen zuen.

14. Afermaren berezitasuna : diruzko pagamendua (ZOH-001/014)

Aferman zenak nagusia diruz pagatzen zuen, etxeko ekoizpenei hunki gabe. Azaroaren 11ko, dirutza bat ematen zion, lur eremuaren eta urteko prezioen arabera. Afermak askatasun gehiago ematen zion laborariari.

15. Afermaren berezitasuna : idatzizko kontratua (ZOH-001/015)

Idatzizko hitzarmen bat pasatzen zuten nagusiak eta laborariak 9 urterentzat guttienez, 18 edo 25 urterentzat gorenez. Nagusiak hitzarmen hau hautsi zezaken kasu bakar batean : adinean zen haur batek etxaldearen segida hartu nahi zuenean.

16. Amikuzeko laborantxaren aldaketak (1950-1960 hamarkadan) (ZOH-001/016)

Aldaketa faktore desberdinak aipatzen ditu Jean-Marie Larroquek : lantresna eta lanmolde berriak, artoak hartzen duen garrantzia, 1963ko norabide legea (loi d'orientation de 1963) eta honi lotu ondorioak (etxalde ttipien desagertzea), elektrika eta uraren ezartzea etabar.

17. Hazitako artoaren garapena (ZOH-001/017)

1940. hamarkadan, Jean-Marie Larroque haurra zenean, ogia eta tokiko arto motak ereiten ziren bakarrik, horietan « le grand roux basque ». Gero sartu dira Ameriketako arto xinitreak (hybrides). Gaurregun, 2600 hektara arto egiten da oraindik Amikuze aldean.

18. Lurberri kooperatiba (ZOH-001/018)

1936an sortu zen zitu (zereala) kooperatiba; honek egokitu behar izan zuelarik hazitako artoaren garapenari (idortegiak etabar). Bigarren gerlatik landa sortu zen, Jean Errecart-eri esker, hornimendu kooperatiba. Bi kooperatibak elgarretaratu ziren 1972an, Lurberri izena hartuz.

19. Euskaldun Gazteriaren mogimendua (ZOH-001/019)

Jean-Marie Larroque mogimendu honetan sartu zen Garikoitzenean ikasle zelarik, Etxegoien erretorraren zuzendaritzapean. Euskaldun Gazteria lotua zen bai erlijioari, bai laborantxa munduko gaiari. Besteak beste lurraren besta antolatzen zuen.

20. Laborarien formakuntzaren garapena Amikuzen (ZOH-001/020)

Urrats garrantzitsuak emanak izan dira laborarien formakuntzan 1952tik hara : Garikoitzenea laborantxa eskolaren sortzea (1952), laborantxari lotu baxoa (1962), laborantxako lizeoa (1968) etabar.

21. Etxarriko formakuntza zentroa (ZOH-001/021)

1968ko laborantxako norabide legeak (Pisani zen ministro) aldarrikatzen zuen formakuntzak asmatu behar zirela, ez bakarrik laborarientzat, baina ere laborantxan egoiten ahalko ez zirenentzat. Horrela sortu ziren han eta hemen formakuntza zentroak, horietan Etxarrikoa.

22. SAFER-aren sortzea (ZOH-001/022)

SAFER-a sortu zen laborantxako norabide legearen ondorioz, laborarien lurren salerospenak kontrolatzeko eta etxaldeek beiratzeko. Lur bat edo etxalde saltzera etortzen zenean, SAFER-ak erosteko lehentasuna bazuen. Jean-Marie Larroquek SAFER-ean zituen engaiaimenduak uztartu behar izan ditu, berantago, bere engaiaimendu politikoekin (1987-2001 : Arbotiko auzapeza ; 1995-2001 : herri elkargoaren buru)

23. Jean Errecart-en eragina (ZOH-001/023)

Auzapez, zenatur eta deputatu egon den Jean Errecartek eragin handia ukan du Amikuzeko aldeko gizartearen garapenean. Gizartearen mugiarazteko arrangura bazuen, dio Jean-Marie Errecartek. Lehen SIVOM edo herri elkargoa sortu du eta, honen ondorioz, Donapaleuko igerilekua eta klinika (1970).

24. Euskal laborantxaren geroaz (ZOH-001/024)

Egoera beti aldatuz doala dio Jean-Marie Larroquek : mundializazioa dela medio, ekoizpenak kurritzen munduan gainti, jenden beharrak orokorki handitzen ari, laborantxa (ogi, arto, beterada) energiaren iturri bilakatzen ari. Horiek oro ikusiz, laborarien beharra izanen da ondoko urteetan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com